

TXINGA-EROATEA

JOKOAREN OINARRIA

Joko honetan bi txinga, bana eskuko, denbora mugarik gabe, ahalik eta distantzia luzeenean eraman behar dira.

ARAUAK

1.art.- Iltzearen edo plazaren neurria, 28 metrotakoa izateko ahaleginak egingo dira.

2.art.- Txapelketetarako txingen pisuak honako hauek izango dira:

Emakumezkoak:

Senior: 25 kg. + - ½ kg

Gazteak: 20 kg. + - ½ kg

Gizonezkoak:

Senior: 50 kg. + - ½ kg

Gazteak: 35 kg. + - ½ kg

PISUEN FORMAK ETA NEURRIAK:

- 50Kg: Forma zilindrikoa, 30cm + - 5cm-ko altuera izango du; diametroa 16,30 cm + - 2cm-koa izango da; heldulekuak 5,50 cm + - cm-ko altuera izango du, 22 mm-ko lodiera. Eta leuna izan beharko du.

- 35Kg: Forma zilindrikoa, gehienez 35 cm-ko altuera izango du; heldulekuak 5,50 cm + - 1 cm-ko altuera, 22 mm + - mm-ko lodiera. Leuna izan beharko du.

- 25Kg: Angeluzuzenen neurriak: altuera 35cm + - 5cm; oinarriaren aldeak 9,5 cm + - 2cm; helduleakua: garaiera 6,50 cm + - 1cm, lodiera 20 mm + - 2mm. Leuna izan beharko da.

Era berean, forma zilindrikoa ere onatuko da, eta gehienez 35cm-ko altuera izango du; heldulekuak 5,50 cm + - 1 cm-ko altuera izango du, 20mm + - 2 mm-ko lodiera, eta leuna izan beharko du.

- 20k. Forma zilindrikoa, gehienez 35 cm-ko altuera izango du; heldulekuak 5,5 cm+ - 1 cm-ko altuera, 20mm + - mm-ko lodiera. Leuna izan beharko du.

3.art.- Parte hartzaileak bereak diren txingekin hartu nahiko balu parte, hala egin dezake, beti ere txingok arauzko neurriak betetzen badituzte eta antolatzaileen esku utzi beharko ditu zozketa aurretik, egiaztatu ahal izateko. Hala nahiko balute, txinga hauek gainontzeko parte hartzaileendako ere eskura geldituko lirarteke.

4.art.- Lehiaketetan zozketa egingo da, parte hartzaileen ordena ezartzeko.

5.art.- Arau orokorra izango da, aurrekoak bukatu eta hurrengoak hasi bitartean hiru minutuz goitiko tarterik ez izatea.

6.art.- “Prest” esandakoan, kirolaria lanean hasteko prestatuko da, eskuak txingetan dituela. Txilibitua jotzean, lanean hasiko da.

7.art.- Iltze edo plaza bakoitza bukatzean, oinetako batekin bederen, azken zintako marra zapaldu beharko du.

8.art.- Parte hartzaileek hobekien irizten dioten pausuan arituko dira lanean. Lehiaketan zehar gelditu ahal izango dira, hala nahi badute, baina txingak eskuetatik zintzilik izan beharko dituzte beti ere.

9.art.- Txingetako bat edo biak gorputzeko atalen batean jartzea debekatua geldituko da eta hala egiten duena, kanporatua geldituko da.

10.art.- Neurketa kirolariak erortzen utzitako edo kirolariari eroritako lehenbiziko txingak utzitako markara arte egingo da. Neurtzeko, marka horretan aurreratuen dagoen aldea hartuko dugu kontuan.

11.art.- Kirolariak txingak aurrerantz botatzen baditu edo bueltaka uzten baditu, lan hori ez dugu baliozkotzat joko eta kanporatua geldituko da.

12.art.- Behin ekitaldia bukatu eta gero, antolatzaileen lana izango da txingak irteera puntuan jartzea.

13.art.- Lehiaketetan, parte hartzaileek antolatzaileek utzitako txingak edo beraiek ekarritakoak erabiliko dituzte. Hautsiz gero edo lehenbizikoak falta izanez gero, antolatzaileek beste txinga pare bat utzi beharko dute parte hartzailearen esku.

14.art.- Lehiakideen eskuak xaboiarekin garbitu beharko dira, eta kirolariak magnesioa aplikatu ahal izango du, dena federazioak emanda eta probaren epailearen aurrean.